MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

Borrar Formulario

TESORERÍA GENERAL
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

Registro de presentación

Registro de entrada

TC.4005

# ESKAERA: HITZARMEN BEREZIETAN KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEA

## 1. ESKATZAILEAREN DATUAK

1.1 LEHEN DEITURA ____
1.1 BIGARREN DEITURA ____
1.1 IZENA ____
1.2 GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA ____

1.3 JAIOTEGUNA: Eguna ____ Hilabetea ____ Urtea ____

1.4 IDENTIFIKAZIO-AGIRI MOTA: N.A.N ☐ ATZERRITAR TXRATELA ☐ PASAPORTEA Nazionalak bakarrik EB/EEE/SUITZA ☐

1.5 IDENTIFIKAZIO-AGIRI ZENBAKIA ____

1.6 HELBIDEA ____

1.7 DATU TELEMATIKOAK

HELBIDE ELEKTRONIKOA ____

GIZARTE SEGURANTZAK NIRI BERRIEMATE INFORMATIKOAK BIDALTZEA ONARTZEN DUT BAI ☐ EZ ☐ TELEFONO MUGIKORRA ____

## 2. ESKABIDEAREN DATUAK

TAS/2865/2003 AGINDUAREN BIDEZ ARAUTUTAKO HITZARMEN BEREZIA

2.1 KOTIZAZIO-OINARRI BERRIA

a) Gehienekoa ☐ b) Batez bestekoa ☐ c) Gutxienekoa ☐ d) Erdikoa ____ €

2.2 KOTIZAZIO-OINARRIAREN GEHIKUNTZA (Gehieneko oinarrirako, batez besteko oinarrirako edo erdiko oinarrirako bakarrik).

BAI ☐ EZ ☐

2.3 ESKATUTAKO KOTIZAZIO-OINARRIAREN GEHIKUNTZA APLIKATZEARI UKO EGITEA

BAI ☐ EZ ☐

1991/07/18 AGINDUAREN BIDEZ ARAUTUTAKO HITZARMEN BEREZIA

2.4 KOTIZAZIO-OINARRI BERRIA

Eskatutako kotizazio-oinarria ____ €

2.5 KOTIZAZIO-OINARRIAREN GEHIKUNTZA

BAI ☐ EZ ☐

## 3. KUOTAREN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK

3.1 BANKU-KONTUAREN NAZIOARTEKO KODEA (IBAN) ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐

3.2 ZORDUNKETA-KONTUAREN TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO-AGIRI MOTA

IDENTIFIKAZIO-AGIRI MOTA: N.A.N. ☐ I.F.K. ☐ ATZERRITAR TXARTELA ☐ PASAPOPRTEA ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRI ZENBAKIA ____

| HARPIDEDUNAREN EDO LEGEZKO ORDEZKARIAREN SINADURA | SOILTASUNA ZUZENDU ETA HOBETU DELA JAKINARAZTEKO EGINBIDEA | EBAZPENA JAKINARAZTEKO EGINBIDEA |
|---|---|---|
| | Data:<br>N.A.N.:<br><br>SINADURA: | Data:<br>N.A.N.:<br><br>SINADURA: |

ESKATUTAKO ZUZENKETA ETA/EDO HOBEKUNTZA

*(01-2022)*

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

TESORERÍA GENERAL
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

## HITZARMEN BEREZIETAN KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEKO ESKAERAREN FROGAGIRIA

Agiri honen atzealdean adierazten den datan, jarraian agertzen diren datuak dituen eskabidea sartu da Gizarte Segurantzaren Administrazio honen erregistroan:

HARPIDEDUNAREN DATUAK

GIZARTE SEGURANTZAREN ZK.

Sarrera-erregistroa

Resguardo
*(01-2022)*

EBAZPEN-EPEA: Eskaera honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea berrogeita bost egunekoa izango da, eskaera izapidetzeko eskumena duen Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren Probintzia Zuzendaritzaren Erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epea eten ahal izango da akatsak zuzentzeko eta agiriak eta beharrezko beste judizio-elementu batzuk aurkezteko eskatu behar denean, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/21015 Legearen 22.1 artikuluaren arabera, epe hori igarota berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskabidea baietsitzat jo ahal izango da, eta hori jakinarazten da 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

TESORERÍA GENERAL
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

## ESKAERA ZUZENTZEA ETA/EDO HOBETZEA

Hitzarmen berezietan kotizazio-oinarria aldatzeko eskaera, zeinaren datuak jarraian agertzen diren, ez ditu Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 66. artikuluan edo/eta urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuak onartutako Araudi Orokorrean ezartzen diren eskakizunak betetzen, beraz ezin da berariazko ebazpena eman eskaera aurkezten den une berean.

HARPIDEDUNAREN DATUAK

GIZARTE SEGURANTZAREN ZK.

39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera,enpresa eskatzaileak HAMAR EGUNeko epean zuzendu beharko du adierazi den okerra, edo/eta aipatu diren agiriak aurkeztu.

Okerra zuzenduko ez balitz edota eskatu zaizkion agiriak aurkeztuko ez balitu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da berariazko ebazpena emango delarik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari jakinaraziko zaiona, dagozkion ondorioetarako.

Irteera-erregistroa

Subsanación
*(01-2022)*

EBAZPEN-EPEA: Eskaera honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea berrogeita bost egunekoa izango da, eskaera izapidetzeko eskumena duen Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren Probintzia Zuzendaritzaren Erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epea eten ahal izango da akatsak zuzentzeko eta agiriak eta beharrezko beste judizio-elementu batzuk aurkezteko eskatu behar denean, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/21015 Legearen 22.1 artikuluaren arabera, epe hori igarota berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskabidea baietsitzat jo ahal izango da, eta hori jakinarazten da 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

## AURKEZTEKO EPEAK ETA ESKAERAREN ONDORIOAK

**Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1991ko uztailaren 18ko Aginduak araututako hitzarmen berezien sinatzaileek** eskatu ahal izango dute aldatzeko eskaera egiten den urte naturalerako hitzarmen bereziaren kotizazio-oinarria aldatzea edo haren kotizazio-oinarria handitzea. Eskaera egiteko epea: aurtengo urtarriletik martxora. Ez du onartzen ekitaldi horretarako ondorengo aldaketarik.Ondorioak: eskaeraren urte berean.

**2004ko apirilaren 1etik aurrera indarrean dagoen urriaren 13ko TAS/2865/2003 Aginduaren bidez araututako** hitzarmen berezien sinatzaileek kotizazio-oinarriaren aldaketa eskatu ahal izango dute edota dagokion igoerari uko egin.

Eskaera egiteko epea: aurtengo urtarriletik irailera. Baldin eta, epearen barruan, eskaera bat baino gehiago egiten bada urte bereko igoeraren oinarri-aldaketari eta/edo eskaerari/uko egiteari dagokionez, azken eskaeraren datuak bakarrik hartuko dira kontuan.

Ondorioak: kotizazio-oinarri berria eskaera egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango da eraginkorra. Oinarri-aldaketarekin batera, oinarriaren errebalorizazioaren gehikuntzari uko egiteko/eskatzeko aukerak markatzen badira, datorren urtean aukeratutako oinarri berria aplikatuko da, eta igoerak edo uko egiteak hurrengo urtetik aurrera izango ditu ondorioak.

## EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

### OROKORRAK

- Dokumentu honek PDF formatu editagarria du, modu elektronikoan betetzea errazteko. Hala ere, eskuz inprimatu eta osa daiteke letra larriekin, zuzenketarik eta zirriborrorik gabe.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bete behar ditu hondo grisaren gaineko espazioak.

## ESPECÍFICAS

### 1. LANGILE ESKATZAILEAREN DATUAK

Datu hauek nahitaez **bete beharrekoak dira**, kontrakoa adierazten ez bada.

**1.1- Abizenak eta izena.**

**1.2- Gizarte Segurantzaren Zenbakia.**

**1.3- Jaiotze data.**

**1.4- Identifikazio-dokumentu mota eta zenbakia.** Markatu "x" batez identifikazio-dokumentuaren mota (N.A.N., Atzerritarren txartela (A.I.Z.) edo Pasaportea) eta idatzi dokumentu zenbakia.

**1.5- Helbidea.**

**1.6- Datu telematikoak.** Gizarte Segurantzaren informazio-komunikazioen bidalketa onartzeko, posta elektronikoa eta/edo telefono mugikorraren zenbakia bete behar da.

### 2. ESKABIDEAREN DATUAK

TAS/2865/2003 AGINDUAREN BIDEZ ARAUTUTAKO HITZARMEN BEREZIA

Aukera dago oinarri-aldaketa eskatzeko edota hitzarmenaren kotizazio-oinarriaren gehikuntzari uko egiteko.

**2.1- KOTIZAZIO-OINARRI BERRIA**

Eskatzaileak bere hitzarmeneko kotizazio-oinarria aldatzea eska dezake, honako hauen artean:

**a) Gehienekoa.** Interesdunaren lanbide-kategoriari edo haren erregimenari dagokion kotizazio-taldearen gertakari arruntengatiko gehieneko kotizazio-oinarria, hitzarmen berezia sinatzea eragin duen laneko baja-datan, betiere azken bost urteetan gutxienez hogeita lau hilabetez jarraian kotizatu badu edo ez.

**b) Batez bestekoa**. Bajak ondorioak izan dituen edo kotizatzeko betebeharra iraungi den egunaren aurreko 12 hilabeteetan hitzarmen berezia eskatu duen langilearekiko kotizazioak egin dituzten kontingentzia arruntengatiko oinarrien batura zati 12 egitearen emaitza den kotizazio-oinarria, betiere hurrengo c) idatz-zatian aipatutako gutxieneko oinarria baino handiagoa bada.

**c) Gutxienekoa**. Indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-oinarria, hitzarmen bereziaren ondorio-datan, Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian (LAAB) edo dagokion Erregimenean, baldin eta oinarri hori LAABen gutxieneko oinarria baino handiagoa bada.

**d) Erdikoa**. Aurreko a), b) eta c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera zehaztutako oinarrien artean dagoen kotizazio-oinarria.

**2.2- KOTIZAZIO-OINARRIAREN GEHIKUNTZA**

Hitzarmen bereziaren kotizazio-oinarriaren gehikuntza gehieneko oinarria, batezbesteko oinarria edo erdiko oinarria aukeratu denean soilik eska daiteke. Kotizazio-oinarriaren gehikuntza eskatuz gero, dagokion araubideko gehieneko kotizazio-oinarria handitzen den ehunekoa aplikatzen da.

**2.3-KOTIZAZIO-OINARRIAREN GEHIKUNTZA APLIKATEZARI UKO EGITEA**

“Bai” aukeratzen bada, hitzarmenaren kotizazio-oinarria ez da handituko dagokion araubidearen gehieneko kotizazio-oinarria handitzen den ehunekoaren arabera, eta LAAB gutxieneko oinarriaren gehikuntza-ehunekoa handituko da.

18/07/1991 AGINDUAK ARAUTURIKO HITZARMEN BEREZIA

Soilik eska daiteke edo kotizazio-oinarri berria edo gehikuntzaren aplikazioa.

**2.4-Kotizazio-oinarri berria.** Jatorrizko araubidean indarrean dauden gutxieneko oinarriaren eta gehieneko oinarriaren artean dagoen kotizazio-oinarri baten zenbatekoa idatzi behar da.

**2.5-Kotizazio-oinarriaren gehikuntza.** Kotizazio-oinarriaren gehikuntza eskatuz gero, dagokion araubideko gutxieneko kotizazio-oinarria handitzen den ehunekoa aplikatuko da.

## 3. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK

Hurrengo eremuak **nahitaez bete behar** dira.

**3.1-Banku-kontua (IBAN)**: Kuotak ordaintzeko ardura duen subjektuaren banku- kontua idatziko da.

**3.2-Banku-kontuaren jabearen identifikazio-agiria**: Banku- kontuaren jabea kuotak ordaintzeko ardura duen subjektuaren desberdina denean,eskabide honekin batera TC1/15-3 eredua aurkeztu beharko da behar bezala beteta eta banku- kontuaren jabeak eta kuotak ordaintzeko ardura duen subjektuak sinatuta.

Kuoten ordainketa helbideratuz Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zordunketa-agindu bat emango dio bere Finantza-Erakundeari, kotizazioak borondatez ordaintzeko. Finantza-Erakundeak zure kontuan zordunduko dizu zenbatekoa orokorrean, hileko azken baliodun egunean.

**"KOTIZAZIO-OINARRIAK" Prozesamenduko Datuen Babesari buruzko Oinarrizko Informazioa**

| | |
|---|---|
| **Arduraduna** | **Borondatezko Aldiko Afiliazio, Kotizazio eta Diru-bilketako ZN** - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia |
| **Helburua** | Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean afiliatutako langileen eta antzekoen kotizazio-oinarrien kudeaketa integratua. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatutako langileen kotizazio-oinarriak kudeatzea, eguneratzea eta kontsultatzea. Ogasun publikoa eta Zerga Administrazioaren Kudeaketa. |
| **Legitimazioa** | DBEO.- 6. artikulua. 1. a) Interesdunak baimena eman zuen bere datu pertsonalak helburu jakin baterako edo batzuetarako tratatzeko. DBEO.- 6. artikulua. 1.c) prozesamendua beharrezkoa da prozesamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legezko eginbehar bat betetzeko. DBEO.- 6. artikulua. 1. e) prozesamendua beharrezkoa da interes publikoan edo prozesamenduaren arduradunari emandako botere publikoen jarduketan egindako misio bat betetzeko. |
| **Hartzaileak** | ZAEA, Epaitegiak eta Auzitegiak, Lan Ikuskaritza, Mutua Kolaboratzaileak,EEZP,GSIN. |
| **Eskubideak** | Onartu gabeko prozesamenduak eta beste eskubide batzuk eskuratzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko eskubidea duzu, informazio gehigarrian zehazten denaren arabera. |
| **Informazio gehigarria** | Datuen babesari eta prozesamendu honi buruzko informazio zehatza gure egoitza elektronikoan kontsulta dezakezu: https://sede.segsocial.gob.es/wps/portal/sede/sede/Inicio/informacionUtil/SS-Proteccion_de_datos/ |